

Felipe Korta Gurrutxaga

*Ordizia,
Gipuzkoa
(1928-2014)*

Aurkibidea

Biografia



1928an jaio zen Ordiziako Bustuntza baserrian. Gurasoak Urrestillakoak zituen. Sei urterekin hasita, Ordiziako fraideetara joan zen eskolara eta geroago gau eskolan ere ibili zen. 15 urterekin CAF lantegian hasi zen lanean Beasainen. 21 urterekin Oiartzunera joan zen soldadutza egitera. Auzora neskame joandako neska madrildar batekin ezkondu zen Ordizian eta lau seme-alaba izan zituen.

Zintak

ORD-034

- **Proiektua:** Ordiziako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-11-04
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ORD-035

- **Proiektua:** Ordiziako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-11-04
- **Iraupena:** 24 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. 1928an Bustuntza baserrian jaioa

- **Erref:** ORD-034/001
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

1928an jaio zen Ordiziako Bustuntza baserrian. Baserriaren kokapena aipatzen du. Gurasoak urrestillarrak zituen eta seme bakarra zen. Etxean soilik egiten zuen euskaraz, kanpoan erdara derrigorra zen.

Transkripzioa

-Hasteko izena, abizena eta noiz jaio zinen esaten badidazu.

-Felipe Korta Gurrutxaga, agorrean hogeitasien milla bederatzirehun eta hogeta zortzin jaio nintzen. Hamentxe Ordizin baserri baten, Bustintza baserrie zan.

-Nun gelditzen da hori?

-Hori dao, e, ia jun zan, ia ezta esistitzen, bota zeбен baserri hori eta etxe berrie ein zeбен han. Bueno, hori zeon trenbide ondun, paso nibela zeon Zaldibi aldea ta haren kontra-kontran zeon. Aitte ta ama Urrustildarrak nitun.

-Biak Urrestildarrak?

-Biek urrustildarrak. Ta baserrin maizter zeren, apaiz batena zan baserria. Ta nik askotan ba haien hizkerie eiten det. Bai, garai hartan ezta harritzekoa, zegatik euskeraz etxin bakarrik eiten gendun. Etxetik kanpora erderaz dana baiño soil-soillik. Ta nik, klaro, ambiente hortan jaio nintzen da, baserri bat zan da sei urte arte ba han ibilli nintzen ba libertade guziyakin, bakizu ondokuk eta etxekonekuk eta abar-da, mutilkoxkor

bakarra nintzan ni han.

-Zenbat zenbat seme-alaba zineten?

-Bakarra nintzen, seme bakarra nintzen. Eta bueno, han libertade guzien hazi nintzen sei urte arte. Eta amak lehenok ez ninduan eskolara bialdu zeatik iruditzen [zitzakun] urrutia zeola ta zeoze gertauko [zitzakula], ta sei urtekin hasi nintzen.

2. Erdaraz ez zekitelako, barre

- **Erref:** ORD-034/002
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:01:36. **Bukatu:** 00:03:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Sei urterekin Ordiziako Fraide benezianoetan hasi zen ikasten. Berarekin gelan zeudenen aipamena egiten du, eta erdaraz ez zekitelako gertatutako anekdota bat kontatzen du .</p>

Transkripzioa

-Sei urtekin hasi zinen eskolara?

-Bai.

-Eta nora?

-Frailletan. "Menesianos" o esaten zioen.

-Nungoak, Ordizikoak?

-Ordizin zeon eskola bat, Santa Ana eskolea, ta garai hartan Menesianok, frailleak zeren han. Eta sartu nintzen eta han izan zan nere bizitzan lehendabiziko mugarrir, hantxe. Han sortu zan. Jun nintzen eskolara ta tutik ez nekin erderaz. Ta ni bezela zeren beste bi mutiko. Ba Zaldibikoa, Aiestaran apellidua, bestea Ordizikoa, ez det esango [izena], behin esan nion zeoze ta ez zitzakon gehiegi gustau, akordatzen zan baiño ez zun hitz egin nahi, [...], eta hirurek han eon giñen, kartel bat jarri ziguen. Eskola hartan klase haundi bat zan, eta zeren hiru sekzio -"tres secciones" esaten zan erderaz-, primera, segunda eta tercera. Terzerakok zien txikiñak, sei urtekoak. Baiño guk ez genekiun ezer, ez erderaz eta ez ezer, ta jarri giñuzen hiru-lau lagun kartel baten, kartel haundi bat paretan kontra, bestetik aparte, ta han zeren karikatura batzuk eta, A, E, I ta nola esaten ziun. Bialtzen zeon mutiko bat hara, ia zarrenetako mutiko bat hara bialdu eta guri erakutsi A-E-I-O-U, [...] guri. Eztakit zenbat denpora egon giñen. Ta badakizu, multil-koskorak pa gaiztuk izaten die askotan. Ta asko sufritu gendun han, neretzat behintzat izen zan oso goorra. Ohitute nere bizimodue era batera baserrin eta han alde batetik kriston disziplinia, eta bestetik bestiak baiño askoz'e gutxio nitzela iruditzen zitzaten. Eta han egon giñen ez dakit pa hamabost egun edo hillabetian edo zenbat egon giñen.

-Frailleak nungoak ziren, hamengoak edo kanpotarrak?

-Menesianos. Haiek uste det bere fundazioa zeukela Frantzian.

-Orduan erderaz ikasi beharko zenuten?

-Honbre, erderaz zan obligatorio, euskeraz ez zun iñok eiten, eta deskuidau ezkerok belarrondokoa igual.

-Euskeraz? Euskeraz egin ezkerok ze kastigo?

-Eske ez gendun eiten. Motibo horregatik ez zan kastiguik izaten, ez genekiun da.

3. Dotrina derrigorrezko ikasgai

- **Erref:** ORD-034/003
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:03:50. **Bukatu:** 00:05:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Bi urte egin zituen fraideetan gainontzekoekin integratu arte. Eskolatik elizara joaten ziren. Eskolan kaligrafia, aritmetika, historia, etab. ikasi zituen. Dotrina derrigor ikasi behar izaten zuten.

Transkripzioa

-Pasauko nintzen hillabete edo eta eskolan besteekin batera jarri ninduen. Ta bela integratu giñen da bastante poliki. Ta han ba gerrate arte, bi urte. El año treinta y cuatro zan hori. Año treinta y seis arte.

-Bi urte egin zenituen?

-Gehio're bai, baiño aurrena bi urte hoiek izan zien ba. [...] Izaten zan ba disziplina haundiakin, ostegun atsaldian izaten gendun jai, eta larunbaten [...] juten giñen da jaien'e bai. Jaien meza nausie izaten zan goizeko hamarretan, ta beratzitatik [...] eskolara juten giñen, eta ordun hartu mutiko guztik, biñaka jarri ta elizaa eramaten giñuzen, frailliak [...] giñuzela elizaa. Meza nausia entzun han eta atzea berriz'e buelta eskolaa biñaka. Ta zeoze kantau ta eiten gendun da deskuidatzen zana elizan zeoze hitzein edo jolastu edo, han egurre zeon. Da kondizio hoietan ba bueno, han pasau giñuzen bi urte hoiek.

-Eskolan zer ikasten zan orduan?

-Danetatik pixka bat. Ba Aritmetikak. Aurrena eskribitzeko ba hasten giñen Kaligrafia, Kopia, gero ba Aritmetika esaten zioen, Historia de España, Historia Sagrada asko. Dotriña ikasi gendun galderak eta erantzunek danak, hasi aurenko pajinatik eta aizkeneraño, memoriz danak. Ta gero tarte hortan zazpi urtekin, ordun eiten zien bi komunio. Komunio txikia ta komunio haundia. Ta komunio txikia tarte hortan ein gendun. Ta etzan, etzien inportantzia haundirik ematen hari. Astegun baten komunio txikia ein da atzea segi eskolan; ta halaxe pasau giñuzen bi urte. Bi urte pasau giñuzen garaian ba ordun, gerra zibilla ordun etorri zan, el año treinta y seis.

4. Hileko lehen ostiralean jauna hartzera

- **Erref:** ORD-034/004
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:06:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Dotrina fraideek ematen zieten eta mutilak bakarrik izaten ziren. Hileko lehenengo ostiraletan jauna hartzera joaten ziren elizara. Diziplina oso gogorra zuten.

Transkripzioa

-Dotrina zeinek ematen zizuen, fraileek?
 -Frailek, klaro, dana fraileek. Eta mutillak bakarrikan, han neskaik eta etzan izaten, mutillak bakarrik.
 -Mutillak bakarrik?
 -Bakar-bakarrik mutillak; neskak ezta pentsau're. Sekula etzan batek nahasten iñola ere. Mutillak bakarrik. Eta gero baakizu, elizan kontuen fraillek zien da, esan dizut, dotriña ikasi gendun memoriz dana, erantzunek eta galderak, danak. Eta lendabiziko [silletan] hillero-hillero komulgatzera ta jutun giñen-da. Garai hortatik ba oso sartuta elizan, ezta. Baiño beti disziplina haundikin, disziplina haundia izaten zan. Han zuzen ez [...] egurre izaten zan, han etzan, e, edo belaunbiko edo belarrondokoa edo dana dala.

5. Gerra garaian, Zaldibiara ihes

- **Erref:** ORD-034/005
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:06:38. **Bukatu:** 00:08:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerra Zibila hasi zenean, zazpi urte zituen. Kanoia baserritik gertu nola jarri zieten eta Zaldibiako baserri batera nola ihes egin behar izan zuten kontatzen du. Etxean ganadua utzi zutenenez, aita joaten zen gauetan haiei jaten ematera.</p>

Transkripzioa

- Ta bueno, holaxe pasau giñuzen ba aurreneko urtek han. Da gerra estallau zen garaian, gerra hasi zan garaian, ordun izan zan neretzat bigarren mugarrie.
 - Zenbat urte zittuzun zuk?
 - Ordun zortzi urte eiteko. Ta ia zortzi urtekin detalliek'e asko akordatzen die. Ta gogoratzen naiz, klaro, zan uztaila, jarri zien, gerra emen dek eta, ba emen zetoze eta etxien da kriston mogimentua zaharrak eta gaztie eta, kauben. Hamen herrien'e bai, herrien lehengusu batzuk nitun, lehengusu propiuek, oaindik'e badauzket hor, eta haiek etorri zien, famili guztie baserrira etorri zien ihesi, zeoze [bazetorrela ta] ihesi. Gu baserrin ta bueno, goizien, nere aitte zana gerran Afrikan ibilitakua zan, "El desastre de Africa" edo ibilitakua zan, da goizian jaiki da ta kaiñoi bat hamen Guardi Zibillen pare hortan Agerre baserri bat bazan hor; hor kaiñoi bat; beste bat han kanposantu ondun, oin hillerrrie esaten da, lehen kanposantua. Ta baserrie erdi samarren zeon. "Leku txarrian gatxaudek hamen". Batak tiratzen, eta bestek... Erdibidean harrapatzen [...], hamentxe... Bueno, hartu danak eta Zaldibira jun giñen. Zaldibira jun ezkerro ia salbau.

- Zaldibira jun zineten?
 - Baserri baten.
 - Baten bat zenduen han?
 - Baserri batean. Gehienak ezaunak izaten zien ordun. Baserri hartara jun giñen, danak lehengusuk eta gu eta dan-danak, baserrie utzi gendun guk ganauek bakarrik. Ta gero gabaz etortzen zan, han egon giñen ba, ez dakit, zortzi-hamar egunen. Eta gabaz etortzen zan aitte ba alpapa moztu ta ganauei jana eman da. Ta buelta berriz'e gabaz. Ta egunez ba hantxe. Ta, koño, ia egun baten [aillegatu] zan eta "ia bukau emen dek gerrea", bukau emen dek eta bueno, atzea etxea berriz'e gere traste guzikin. Hamar bat egun egin da bukau...
 - Zuk bonbak hemen bota zituenekin akordatzen zera?
 - Bonbak gutxi bota zituen hamen. Bota zituen baiño gutxi. Nik behintzet nik goguan dauzkatenak, ez dakit, hiru-lau bakarrik izan zien. Eta gu ba txikiak giñen eta ez zigun min haundirik ein.

6. Erreketeak etxe barruan

- **Erref:** ORD-034/006
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:08:56. **Bukatu:** 00:11:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:

Zaldibiatik etxera bueltatu zirenean, Etxarri Aranazko erreketeak aurkitu zituzten etxe barruan. Hildakoak ere izan ziren eta haien inguruko kontuak aipatzen ditu. Eskolan gerra giroa zuten eta frontoian egiten zituzten guardiak eta instrukzioak. Fusilak umeez ere eskura zituzten; 11 urterekin bata bestea hildakoa aipatzen du.

Transkripzioa

-Ordun puxkat hariari segituz, etxea etorri giñen eta billau gendun baserri guztia dana reketez beteta. Dana reketeez ia hartuta zeuken dana, zien hamen Sakanakuk edo, Etxarri Aranaz eta alde hortakuk danak. Bete-bete einda. Ganbaran-da etzanda ta han. Jendia beldurtu zan ze ete zan. Da egunak egon zien zortzi-hamar egunien, eztaikit, puxkat juntatzen-da, puxkat organizatzen-da. Ordun bazien, egin zebe kriston eskabetxinak garai hartan, hamen'e bai baiño Beasaiñen frente eman ziu da garbitu zebe jente asko. Hatu te... Ez al dizue holakoik esan? Eske askotan beldurra emate'u esateak. Nahiz hainbeste denpora pasatu ba...

-Bai, goguan daukazu oraindik.

-Honbre. Eta ixilik egoten zien etxien [holako ta emen die], baiño kontuz! Baiño mutil-koxkorak bakizu beti ere antenak zuzen eukitzeitu ta, jakin nahi ta, [gitxi gorabehera] zeeze zertzen zendun, hamen baek zeeze. Hemezortzi garbitu zituen hamen Ordizin. Hartu mutil gazteak eta pareta kontra ta. Enfin, hura pasatu zan hola, ta eskolan ba gerra-giroa zan dana, gerra-giroa. Da eskolan bertan'e ze hamengo reketeez [...] zien, gu ia eskolan setienbrean hasi giñen berriz'e, ordun zeuken behean, frontoi-koxkor bat zeuken eta frontoi bertan eitten zebe bere instrukziuak eta bere fusillekin eta guardiek eta eiten zuen han, eta gu eskolan goien. Eta, klaro, han'e gorabeherak izan zien; han e fusillekin..., gauza hauek esatie askotan ba; mutil-koxkor batek hartu fusille ta, "voy a hacer a ese una

gracia, voy a hacer un susto”, eta daunba!, seko mutilla utzi, hamaika urteko mutil-koxkorra. Ta hil zuna oaindik bizi da. Klaro. Gauza hauek etortzen badie burura ba, koño, zer esaten ari dek hau, ezta? Baiño oaindik bizi da gizon hori. Ta holakuek, e, normala zan. Eta haiek alde ein tzeben frentea ta gu hamen geatu giñen.

7. Erreketeen hiletak

- **Erref:** ORD-034/007
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:11:16. **Bukatu:** 00:14:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Hautzaroa gerrak markatuta zien, jolasak ere gerrarekin lotura zutenak izaten ziren eta. Errekete bat hiltzen zenean, zirkulu karlista zegoen lekuan jartzen zuten gorpua eta mutil gazteak instrukzioak egitera joaten ziren martxa militarren atzetik.

Transkripzioa

-Gerraten hura izan zan ba, markatu giñuzen, e, erabat. Nik uste det gure hautzaroa garai hartan markatuta geatu zala gerrakin. Zeatik danak jolas guztik eta kontu guztik eta giro guztie zan gerran ingurun, gerra ingurun. Pentsatu zazu, intrukzioa eiten erakutsi ziguen, hamen Barrenetxe hortan horrea juten giñen eskolatik irtendakun da...

-Barrena Jauregi hortan?

-Bai. Artean etzan... Markesena, ta baiño gerra garaie zan.

-[...]

-Bai. Mutilkoskorrak. Ze instruzio eingo gendun guk, baiño behintzat.

Mutikoak gu, eztet izenik esango baiño zeñek erakusten zigun-da. Un-dos!, atzea ta aurrera han ibiltzen giñen.

-Bildurrik pasatzen zenuen?

-Bueno, bildurre, nik eztet esango. Bee. Bildurrik ez. Esateizut ba mutilkoskorrak garai hortan, badakizu, koño, gustoa...

-Gerra denpora hortan etxetik ateratzeko ta beldurrik...

-Ez, ez.

-Kalean da normal?

-Ez, ez. Halako kontuik etzan. Egoten zien ba, klaro. [...] retinan geratzen die ba, joe, orduko imajen batzuk ezin dienak kendu. Ta bat zan rekete bat hiltzen zen garaian ekartzen zebeñ honea. “Círculo Carlista” edo zeuken ordun da han jartzen zebeñ gorputze ta etortzen zien ba rekete batzuk frentetik eta haren ingurun fusillekin guardia eiten, da mutilkoskorrak eskolan segituan enteratzen, bueno! “Ha muerto fulano”, erderaz egiten gendun beti, “ha muerto fulano”. Korrika erten eskolatik eta danak; espektakulua zan zuretzako. Fusillekin da danak. Hurrengo egunien ba entierro. Ta entierroan ba mutilkoskorrak instruzioa eiten-da han juten giñen. Banda-musikakin gorputzen atzetik martxa funebre bat jotzen zuten pon-pon-ponpon-pon... Joe, emoción, eta gu atzetik. Ta gero arenga bat egiten zuen han kanposantun, eta Arama aldea begira gero deskarga bat, prrr! Ta guretzat hura zan ba el no va más. Detalle horik gelditzen die betirako. Hoiek ezte ahazten.

-Goserik pasatu zenuten?

-Gerotxuago etorriko zaizu hori. Baiño ordun esateizut bai reketia hiltzen

zanian, edo baita “Han cogido Santander”, eskolatik ateatzen giñuzen danak eta desfilatzea herri guztin, han mutilkoxkor danak musikokin-da. Hola jun zan gerra. Eta guri imajiña bat jarri ziguen gerran, baiño ordungo tebeok eta kontuk eta txistek eta danak zien gerra. Eta bueno, mutilkoxkor earrak eta politak eta ondo dibujautakuak eta, eta bestiak berriz kriston gaixtuk eta txarrak eta bueno! Eta beti ba onak irabazten zeбен, bakizu, onak irabazten zeбен. Ta giro hortan haurtzaroa ba hiru-lau urte ba pasau giñuzen.

8. Eguneroko jakiak; angulak merke-merke

- **Erref:** ORD-034/008
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:14:30. **Bukatu:** 00:18:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>11-12 urte zituela gerra amaitu zen eta gosetea etorri zen orduan. Etxean behiak izaten zituzten, baina maizterrak ziren. Ekonomikan ogia egiten zuen amak. 12-14 lagun elkartzten ziren etxean eta gaztaina, talo eta sagardo nahikoa izaten zuten. Otorduetan barazkiak eta potajea jaten zuten eta igandeetan garbantzuak ziren jaki berezi. Arrain ugari izaten zen eta kalitate onekoa. Angulak merke izaten ziren; arrainen bat erosiz gero, eskukada angula oparitzen zuten.</p>

Transkripzioa

-Eta ia hamaika-hamabi urtekin ordun bukau ein zan gerra eta ia etorri zien honea, eta lanak [...] berriz'e hasi zien gauzak gaizki baiño bere oneratzten. Eta sortu zan ba oain galdetu dezuna gose kontu hori. Eta izan zan ba berrogeiko hamarkadan gosete kristonak izan zien. Eskerrak baserrin geundenai. Nik uste'et nik hainbet talo ta esne jan dunik eztaola Euskadi guztin'e beste mutilkoxkor bat garai hartan. “Cereales son buenos” esaten diabe, ta “cereales”, mekabuendiez, nik jan ditutenak, nere artian, bueno. Ba han izan gendun ba txerrie jartzten gendun, esne, nahiko esnie gure behiekin.

-Ze ganadu zeukazuen etxean?

-Gutxi. Garai hartan oaindik gerratin bat gendun, bi, bi, bi genduzken. Bat hori, goiko hori, ta beste bat. Ta gero ia hiru-lau eukitzen giñuzen. Da baserri koxkorra oso, ta ni naiz bai herrikue ta bai baserrikue, zeatik ibiltzen nintzen ba fabriken eta baserrin, bietan, ta aitte're bai. Ze gu baserri koskorra oso baiño jakiteko baserrie zer den ikasi genduen ondo. -Hainbeste ikasi zendun.

-Bai. Eta gaiñera garai hartan izan zan beharrezku, zeatik [ereiten] artoa, garie're ereiten gendun garai hartan hamen, ta garie, ogie ta...

-Terreno asko zenduen?

-Bueno soro polittek genduzken; ez giñutzen gurek, e, maizterrak giñen. Baiño hiru soro onak genduzken. Ta hiru soro haietan ba lana ataratzen gendun. Nahiko babarruna, artua ta baba ta... Han [sortzen] giñen.

-Ogia etxean egiten zenuten?

-Bai. Baiño holako labe...

-Labesue...

-Labesue; ez antigualeko labesu hoietan, hor baserri horretan holako labesurik etzeon. Ekonomika esaten zioen txapa hortan, hor labe hortan ba han eiten [...].

-Zuk sekula ogirik egiten zenuen?

-Nik ez.

-Amak?

-Amak, amak. Hoiek aman kontuk zien hoiek danak.

-Eta ogia etxerako izango zan.

-Etxeako bakarrik. Eta ordun etxien, nahiz gu hiru bakarrik izan, juntatzen giñen ba hamabi-hamalau, hamasei'e igual.

-Senideak, etxekoak?

-Herrin genduzken lehengusuk eta haien lagunek eta danak baserria etortzen zien, ta izeten zan ba behintzet garai honetako gaztaiñak jateko..., danbolinkada gaztaiñak erre ta; [...] haiek jan eta gero nahikua sagardua edan da gero talo ta esnea gaiñen.

-Otordutan zer jaten zan garai hartan?

-Bueno, gehienin babarrunak asko. Eguardin babarrunak ia urte guzin. Eta gero txerrikiakin, txerrikiakin, da gero berdura nahiko genduken baratzen da, berdura astegunen. Jaietan jeneralien garbantzuk izaten zien. Zan alimento nacional garai hartan. Danak garbantzuk eta. Garbantzue ez zan edozeiñ egunetan jaten. Jaien da, egun haunditan hola.

-Arrairik eta?

-Arraie bai. Arraie asko ta ona. Garai hartan ez konjelaurik eta holako gauzaik etzeon ezerre. Ta orduan legatza ta hoiek zien...

-Merkea zan arraina?

-Nik uste det baietz. Antxoa behintzat oso merkea zan.

-Eta txitxarroa eta...

-Txitxarro gutxi jaten zan, txitxarroa ordun despreziau eiten zan.

-Merkea esaten dute.

-Merkea, klaro. Txitxarroa etzan. Gure etxean legatza jaten zan asko.

-Eta angulak?

-Angulak pillak zien ordun. Akordatzen zait ze "peskadora" esaten giñun guk, arraie saltzera juten zan emakume bat, Arraizatarra, juten zan Zaldibira egunero oiñez. Karro haundi batekin, eamaten zun, tar-tar... Jotzen zun [turuta], eta irten da ba ze arrai daukazu ta, hau ta hori ta. Han eukitzen zun pilla bat angula. Jeneralen esateizut ba legatza edo hola izaten zan, bastante ona jaten gendun hartutakoan, pagatzen zenduanean aiba! eskutakada botatzen zien.

-Angulak?

-Propiña angulak. Ordun etzeuken, oingo estimazioik eta gutxiagoik ez etzeuken ordun angulak. Eta handik askoz gero ere ez. Oain dauke, oin eztaon garaian oaintxe balio du anguliek.

9. Lanaren truke errotariei "laka"

- **Erref:** ORD-034/010
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:19:17. **Bukatu:** 00:21:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Amak taloak nola egiten zituen azaltzen du. Ordiziako eta inguruko herrietako errotak izendatu eta non zeuden azaltzen du. Astoa hartuta joaten ziren errotara. Irinaren hainbesteko bat errotariei eman behar izaten zitzairen lanaren ordain gisa; "laka" deitzen zitzaion.</p>

Transkripzioa

-Taloak bezela.

-Taluk, joe, hor ikusten ditut taluk. Talo hoiek jan? Nik eztet jaten.

-Zuek nahiko eginda lehenago.

-Nahikoa eginda ta nik uste det gure ama zanak beste era batea eiten zitun taloak. Oso diferente. Su bajuak, e, su bajuak beti taluak. Eiten zun aurrena, klaro, orea, orea behar du aurrena iriñe selekzionau, zeñ errotetan iriñ hobia eiten zebeñ. Iriñe ekarri, zeñek zai gutxio, galbahi bat hartu fiñ-fiñ-fiñe, ta-ta-ta pasau ta fiñ-fiñ geratzen zan. Ta gero oria eiteko, eztakit zegatik, ude ere tenplau eiten zun, sutan jarri ta tenplau ta harekin orea ein; da gero bueno, jartzen zun, pala bat izaten zan belauenen gaiñen, aulki txiki baten jartzen zan, ta-ta-ta!, zapi bat ibiltzen zun talua egiteko, sartu eskue zapi azpitik da talo-burnira, talo-burnia surtara, beheko surtara. Han buelta ematen zion; bitartin, klaro, beste talo bat eiten hurrengoentzat, hura geldituta ez, kate bat zan hori, ta ibiltzen zun parrilla bat, eta parrilla hartan brasa bota parrilla azpin, eta talo-burnitik parrillera pasau talo hori. Txiki samarrak egiten zitun baiño fin-fiñek. Ta jartzen zan bubuuuu, ta baloie bezela puzten zan, ta puzten zan garaiei, aiba, mahi luze bat zan su ondun han, botatzen zun mahira, ta benga. Harrapatzen zunak; eta benga...

-Errota nun zegoen?

-Errota bat zegoen hamen kanposantu ondun; etxe hura bota zebeñ, berrie einda dao, hor zeon errota bat eta...

-Zer izen zuen akordatzen?

-Exposito zun nausiek izena. Eitten zebeñ, errota hartan eitten zebeñ. Eta eiten zebeñ kalidade bastante zakar eiten zebeñ, zai askokin da. Ta lbasesen, Araman, hor askoz'e fiñaue eiten zebeñ. Irizar badie familie. Hoik hobia eiten zebeñ. Zaldibin'e eiten zebeñ, baiño Zaldibin'e zakarragoa eta jeneralen guk lbarestik ekartzen gendun han iriñ hobia zalako.

-Ze joaten ziñeten, astoa hartuta edo?

-Astokin, jeneralen astokin.

-Akordatzen ordaiñetan ze utzi behar izaten zenduen?

-Ni mutilkokorra nintzen da. Ordaiñetan? Debalde ez. Artua eaman da iriñe ekarri etxea ta. Laka uste det esaten zitzaiola, laka esaten zitzaion ba porzentaje bat igual ba zure iriñetik erantzat geratzen zien. O dirutan pagatu're bai. Hori da ba harremanak nola izaten zien errotariekin, ezta.

10. Txerria hiltzean odolkiak banatzeko ohitura

- **Erref:** ORD-034/011
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:21:53. **Bukatu:** 00:24:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>Txerria hiltzera harakina joaten zen etxera. Festa egiten zuten goizetik hasita. Txerria nola hiltzen zuten azaltzen du. Txerria hildakoan ohitura zen inguruko etxeetara odolkiak eta txorizoak eramatea eta propinetan erreal bat jaso ohi zuten. Apaizei odolki eta txerrikia ematea derrigorra zen ia.</p>

Transkripzioa

-Eta txerri hiltzea? Zeiñek hiltzen zuen txerria etxean? Aittek?

-Ez. Guk jeneralen, Alkarte ba zan, oaindik zutik do baserri hori; oiñ Usabiaga kamionakin ibiltzen dana, hor dauzke ofizinak jarrita, ta jeneralen hori ekartzen gendun. Joxe Martin edo zeuken izena gizon horrek, harrek hiltzen zun txerrie. Ta gero hura zahartu zan bastante eta begi bat'e galdu zun da gero karnizero bat ekartzen gendun. Kaletik karnizero bat, eta festa bat izaten zan txerri-hiltzeko eguna. Bueno.

-Txerri-boda edo?

-Joe! Txerri-bodaik ez gendun egiten baiño festa bat bai. Goizien sartu, aurretik preparau odolkiak eiteko eta barriño haundi bat kipulak eta oreganuk eta eztakit zenbat gauza botatzen zixon amak, preparauta jartzen zun hura, eta gero kutxillu sartutakun odolak txerritik odola eroritzen zan bezela barriñoira. Ta han ra-ra-ra!, benga ta benga. Eiten zitun odolki batzuk. Eta gero egosi han su bajun eta atzetik ipiñi txintxiliska pertza haundi bat, eta odolki batzuk de cine. Ta gero mutilkoskorak partitzera.

-Zer izaten zan, ohitura?

-Ohitura auzoan partitzen. Jeneralen inguruko etxie bazan, Garmendiaenea edo etxien izena, oaindik zutik dao. [...] Alkartera edo Majorira edo baserritara. Eamaten giñuzen ba odolki bat, bi odolki edo lau, eta gero beste txerri-pusketa bat, ta beti propiña izaten zan, errial bat, eamaten zendunin enkargue ba aiba, poltsikorako, kristona, honbre. Da gero esaten debe ba "odolkik ordaiñetan" izaten die, eta klaro, berak etxea bialtzen zebe garaien haiek'e ordun etxea bialtzen zuen berriz, eta bueno.

-Medikuari eta apaizari eta ematen zenieten?

-Bueno, apaizei, apaize nausie gendun gaiña apaize, baserrin nausie apaize zen. Apaiz bat. [...]. Harri... Eta medikuai, medikuai ez, eztet uste. Medikuei tratue bai, haiek etxea etortzen zien garaien ba beorika beti, zuka ez, beorika. Txapela kendu're bai etortzen zien garaien saludau ta. Baita albaiteruari ere bai. Albateruari're beori. Hori zan kostunbre bat, klasek; eta beorika nere gurasoak eiten zebe erreztasun guziakin. Beorek esan du, beori jun da... Hori halaxe zan.

11. Medikuei eta albaitariei berorika

- **Erref:** ORD-034/012
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:24:00. **Bukatu:** 00:24:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

<p>Medikuari eta albaitariari "berorika" hitz egiten zitzaien eta agurtzeko txapela kentzen zen.</p>

12. Haragia mantentzeko, gazi-kutxa

- **Erref:** ORD-034/013
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:24:30. **Bukatu:** 00:25:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Txerriak eta haragia gatzetan igurtzita kutxa batean gordetzen zuten eta handik ateratakoan zintzilika sukaldean jartzen zuten lehortzen. Garai hartan errazionamendua zegoen eta kartila batzuk ematen zituzten familiaren aberastasunaren arabera.</p>

13. Errazionamendua eta estraperloa

- **Erref:** ORD-034/014
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:25:55. **Bukatu:** 00:28:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Estraperlotik jende asko aberastu zen. Caf lantegian 15 urterekin zuen soldatarekin ezin zen litro bat olio erosi. Estraperloko jakiak Nafarroa aldetik ekartzen zituzten gauez. Tabakoa ere errazionamenduan hartzen zen; estraperlokoa, bestalde, oso garestia izaten zen.

14. Tabako motak eta pipa

- **Erref:** ORD-034/015
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:28:35. **Bukatu:** 00:29:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Tabako mota ezberdinak aipatzen ditu. Pipa gutxi erretzen zuten. Feliperen aitona zen gutxi horietako bat eta txapelean gordetzen zuen pipa.

15. 15 urterekin CAF lantegira lanera

- **Erref:** ORD-034/017
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:29:50. **Bukatu:** 00:32:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Fraide Benezianoek gerratea bukatu aurretik alde egin zuten eta orduan hasi zen Felipe CAF lantegiko eskolan. 15 urterekin lantegian bertan hasi zen lanean, aprendiz moduan. Limarekin egiten zuen lan asko. Gau-eskolan ere ibili zen soldadutzara joan arte.

16. Soldata amari entregatu behar

- **Erref:** ORD-034/018
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:32:36. **Bukatu:** 00:35:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Lanean irabazten zuen soldata. Irabazitakoa amari entregatu behar izaten zion. Soldata ordaintzeko txartel batzuk ematen zizkieten eta asko ibiltzen ziren haiek faltsifikatzen etxean ohartu ez zitezen. Diru premia handia zegoen.

17. Ordiziako lantegiak

- **Erref:** ORD-034/019
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:37:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Ordiziako lantegi ezberdinak aipatzen ditu. CAF lantegiaren eraginez kanpotar ugari etorri zen Ordiziara bizitzera.

18. Azokara sagarrak eta barazkiak saltzera

- **Erref:** ORD-034/020
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:37:07. **Bukatu:** 00:41:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera

Laburpena:

Felipen etxekoek sagasti ugari zituzten, eta azokara saltzen zituzten sagarrak barazkiekin batera. Gurdia bete eta zaldiz joaten ziren. Azokako postuak lurrian jartzen ziren. Azoka eguna baserritarrentzat garrantzitsua izaten zen, goizeko 6etarako joaten ziren eta iluntzera arte izaten zen. Anekdota bat aipatzen du.

19. Azokara saltzera autobusez

- **Erref:** ORD-034/021
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:41:37. **Bukatu:** 00:43:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Azokara saltzera joaten zirenek ateratzen zuten dirua etxerako jeneroa erosteko erabiltzen zuten. Kanean bertsopaperak ere saltzen zituzten. Saltzaileak inguruko herrietatik eta Azpeititik ere joaten ziren eta autobus gainean eramaten zuten azokan saltzeko jeneroa.

20. Azoka egunez idi-probak

- **Erref:** ORD-034/022
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:43:38. **Bukatu:** 00:45:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Azokara joaten ziren gizonezkoak bertan geratzen ziren bazkaritan eta mahai ondoan egiten zituzten ganadu tratuak; emakumeak, aldiz, eguerdian etxera joaten ziren. Arratsaldeetan, ganadua saltzen bazen, ganadu plazan probatzen zituzten harria lotuta. Idi-probak egiten ziren eta apusturako zaletasun handia zegoen.</p>

21. Aizkora apustuak eta Ordiziako festak

- **Erref:** ORD-034/023
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:45:45. **Bukatu:** 00:48:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Azoka egunean eta egun berezietan aizkora apustuak egiten ziren Ordizian. Ordiziako festen aipamena egiten du. Kotxe eta motorrik ez zuen inork eta bizikletan ibiltzen ziren alboko herrietako festetara joateko. Bi erreal ordaintzen zituzten bizikleta gordetzeagatik. Ordiziara Burgosko banda militarra etortzen zen jaietan.

22. Kizkitza, Larraitz eta Saturdiko erromeriak

- **Erref:** ORD-034/024
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:48:16. **Bukatu:** 00:51:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Frontoian berbena egiten zen eta sarrera ordaindu behar izaten zuten. Apaizek ez zuten ondo ikusten berbena. Larraitzeko erromeriara eta Zaldibiako Saturdi auzora joaten ziren, besteak beste. Kizkitzara oinez joaten zirenekoa aipatzen du. Larraitzera goizeko 6etarako mezetara joaten ziren ogitartekoa hartuta. Erromeria entzun eta iluntzean bueltatzen ziren etxera.

23. Mezara igandero; ariketa espiritualak

- **Erref:** ORD-034/025
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:51:52. **Bukatu:** 00:53:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Mezara igandero joaten ziren. Elizak eragin handia izan zuen Feliperen adinekoekin, garai hartan dena zen bekatu eta. Urtean behin misiolari eta apaizak joaten ziren eta ariketa espiritualak zeritzenak egiten zituzten; nolakoak ziren azaltzen du.</p>

24. Jauna hartzera baraurik joan behar

- **Erref:** ORD-034/026
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:53:53. **Bukatu:** 00:55:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>Luistarren kongregazioan egon zen eta zer zen azaltzen du. Konfesatu egin behar izaten zuten eta zigorrak fraideetan izaten ziren arinenak. Bi jaunartze egin zituen. Jauna hartzera baraurik joan behar izaten zen eta jauna hartu nahi bazen zortzirak aurretiko mezetara joan behar izaten zen.</p>

25. Arto-zuritze garaian kontu-kontari

- **Erref:** ORD-034/027
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:55:46. **Bukatu:** 00:57:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

San Luis egunez edo Ama Birjina egunez, besteak beste, goizean jauna hartu eta meza nagusira joaten ziren kandela bat hartuta. Etxean arrosarioa egunero errezatzen zuten. Arto-zuritze garaian farola piztu eta familia giroan kontu-kontari aritzen ziren.

26. Ipuinak etxean; ohitura zaharrak

- **Erref:** ORD-034/028
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:57:14. **Bukatu:** 00:59:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

Laburpena:

<p>Txiste eta ipuinak kontatzen zizkieten etxean. "Mateo Txistu"ren istorioa kontatzen du. Gaztaina erreak eta talo-esnea jaten zituzten arto-zuritze garaian. Erramu egunean, erramua bedeinkatu eta haiekin egindako gurutzeak jartzen zituzten atean eta kandela pizten zuten tximista eta gaitzen kontra.</p>

27. Ur bila Usunbilako iturrira

- **Erref:** ORD-034/029
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:59:25. **Bukatu:** 01:00:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Argia beti ezagutu du etxean, baina urik ez zuten etxe barruan. Ura gertu izan arren ez zuten etxean urik eta Usunbilako iturrira joan behar izaten zuten. Negua ura sutan berotzen zuten garbitasunerako.

28. Umetako janzkera eta higieena

- **Erref:** ORD-035/001
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Umetan nola janzten ziren azaltzen du. Dutxarik ez, errekan garbitzen ziren. Arropa nola garbitzen zuten azaltzen du. Felipe berak autoritate pixka bat izan zuenean etxean, dena berritu zuen, hainbeste lan egin behar ez izateko.

29. Lurra nola garbitzen zuten

- **Erref:** ORD-035/002
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:01:24. **Bukatu:** 00:02:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Lurra nola garbitzen zuten azaltzen du. Sabaitik zikinkeriarik ez erortzeko zer egin zuten kontatzen du.

30. Baserriaren deskribapena eta kokapena

- **Erref:** ORD-035/003
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:02:13. **Bukatu:** 00:03:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Baserria oso handia zen. Barruko aldea nola zegoen banatuta azaltzen du. Inguruan bazeuden baserriak, baina 300-400 metrora.

31. Telefonoa eta irratia

- **Erref:** ORD-035/005
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:05:53. **Bukatu:** 00:07:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

<p>Telefono eta irratirik ez zegoen lehen. Mezuren bat bazegoen, telegrama bidaltzen zitzairen, eta zentralitara joan behar izaten zuten hitz egiteko. Oso telefono gutxi zeuden Ordizian: dozena erdi bat inguru. Herriko familia aberats batek bazuen irratia, eta hura entzuteko, kalekoak zuhaitzera igotzen ziren. Lehenengo irratia 26-28 urte zituela izan zuen Felipek.</p>

Transkripzioa

- Telefonoik eta irratik etxen?
- Telefono, telefono pentsatu zazu, esan dizut leno nere aitte ta ama Urrestildarrak ziala. Han bakarren bat hiltzen bazan edo, o gaizki bazeon, o notizi bat pasau ber bazeben, aurretik hots eiten, telegrama bialtzen zeuben: “biyar hamaikatan jungo gaituk telefonoa”. Ta haiek juten zien zentralita Urrestillan telefonoa, ta hamen ama zentralita Ordizira,

hamaikatan.

- Zentralita nun eoten zan, udaletxen o?

- Udaletxe azpin. Ta zentralitatik zentralita jartzen zian, ta hitz eiten zuen, ta esaten zituen esan beharrekok. Hoik zien hamengo telefonuk. Ordun telefonuk Ordizin, ba ez dakit, bankun batek eukiko zitun, ta fabrika batek akaso, baiño dozena erdi bat ez zien eongo. Telefonoik iñok ez. Irratik? Ni mutil koskorra nintzela, akordatzen naiz, ba, Faustarrak zien hemen ordun, bakizu, jauntxuak zien herrin, hor zaken ba txalet bat.

- Txalet bat.

- Ezautu al zendun?

- Bai, bai.

- A bueno. Hoiek zeken irrati bat. Ta gu bizi giñen Bustintzan, ta hoiek jartzen irratin, bua, martxa guztin udan. Ta bazan sagasti bat han, sagasti bat joten zian, hor illuntzean hori aitzea joten giñen. Hotsa pipirrirrreererrerrurre, ez zan entenitu're ia ezer iten, baiño hangok radiyua eukitzen zuen.

- Nobedadea.

- Nobedadea gutzat. Ta ni radiyua, aurreneko radiyua gure etxen sartu zan ba, ni ya hogeitaxe o zortzi urte nitula. Ez zazula pentsau.

32. Soldadutzan ematen zieten tratua

- **Erref:** ORD-035/006
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:07:23. **Bukatu:** 00:09:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzara 21 urte zituela joan zen; 15 hilabete egon zen han. Ondo pasa zuen, baina militar jendeak ematen zuen tratuarekin oso amorratuta bueltatu zen. Soldadutzako kide bai umiliatu zuteneko anekdota kontatzen du.</p>

33. Soldadutzako lana eta etxerako baimenak

- **Erref:** ORD-035/007
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:09:51. **Bukatu:** 00:10:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Soldadutzan bazegoen euskaldun jendea ere berarekin batera. Izkribatzaile-lanetan ibili zen. Etxera bueltatzeko baimenak bazituzten, hilabete etxean eta hilabete soldadutzan ematen zuten. Eta etxean zeuden bitartean, lan egiten zuten, irabazitako dirua soldadutzan zeuden bitartean gastatzeko. Soldadutzan bi erreal kobratzen zituzten.</p>

34. Soldadutzan zigorrik ez, baina oroitzapen on bakarra: lagunak

- **Erref:** ORD-035/008
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:10:56. **Bukatu:** 00:11:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Kalabozoan ez zen inoiz egon, eta ez zioten tratu txarrik eman. Goserik ez zuen pasa. Kalera gutxi jaisten ziren. Soldadutzako oroitzapen on bakarra han egindako lagunak dira. Beste ezer positiborik ez.</p>

35. Lana eta lagunak

- **Erref:** ORD-035/009
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:11:54. **Bukatu:** 00:13:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Soldadutzatik bueltatu, eta CAFen jarraitu zuen lanean. Han egin du lan erretiratu den arte. Kuadrillari buruz hitz egiten du: astean behin elkartzen ziren, igandeetan.</p>

36. Aisialdia

- **Erref:** ORD-035/010
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:13:43. **Bukatu:** 00:14:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Zineaz hitz egiten du. Dena erdaraz egiten zen. Eskolan euskaraz eginez gero, burlak jasotzen zituzten. Lagunartean, euskaraz egiten zuten. Parrandan ateratzean, beti kantari ibiltzen ziren.</p>

37. Bertso-giroa gaztetan

- **Erref:** ORD-035/011
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:14:59. **Bukatu:** 00:16:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Bertsotan ona zen lagun batez hitz egiten du. Lazkao Txikiren laguna zen hura. Ordizian ez ziren bertso-jaialdi asko egiten, eta noiz ospatzen ziren eta nork parte hartzen zuen aipatzen du. Jaialdi horietan izaten zen polemikaz hitz egiten du.</p>

38. Opariak kantatzen

- **Erref:** ORD-035/013
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:16:47. **Bukatu:** 00:18:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Urrestillara "ezteietara" joan zenekoa kantatzen du. Txekorra hil, hura jan, eta, gero, hango bakoitzak kantatu egin zuen zer opari eman zion bere alabari.</p>

39. Norbait hiltzean, izaten ziren ohiturak

- **Erref:** ORD-035/014
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:18:17. **Bukatu:** 00:19:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kanpaiak

Laburpena:

<p>Norbait hiltzen zenean, zer ohitura izaten zituzten azaltzen du: bazkari berezia, janzkera, elizako kanpaiak...</p>

40. Diskriminazioa Elizan

- **Erref:** ORD-035/015
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:19:31. **Bukatu:** 00:20:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Elizan zer diskriminazio zegoen azaltzen du: zenbat diru, halako meza.</p>

41. Ehorzketa zibila

- **Erref:** ORD-035/016
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:20:31. **Bukatu:** 00:21:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Elizara joaten ez zen gizon bat hiltzean, ehorzketa zibila egin zioten. Inork ez zuenez eraman nahi gorpua, ordaindu egin zuten hori egiteko. Gorputzaren atzetik joan ziren gizonek isun izugarria ordaindu behar izan zuten. Bedeinkatu gabeko lurretan lurperatu zuten gero.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-01

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com